


14. AEBko LITERATURA HANDIAREN GAILURRA. BELAUNALDI GALDUA



Lehenengo Mundu Gerraren ondoren, gaztedi iparramerikarrak ideia eta egitasmo handietan fedea galdu eta oraina bizitzeari ekin zion. XX. hamarkadan gaude, "happy twenties" deituraz ezagutzen den garaia eta jazz, charlestona, alkohola edo automobil distiratsu handiak datozkigu burura. Gaua maite du gazteria berri honek, *flapper* deituriko emakume gazte liberatuz betea dagoen gaua. Baina horretaz gainera, diruaren eta aberastasun errazaren usainean, etorkin uholdeak Estatu Batuetara iristen den garaia ere badugu, agintarien ustelkeriarena, Lege Lehorrarena... eta nola ez, gangsterren sorkuntzarena. Legeak debekatzen zituen negozioez jabetu ziren gangsterrak: edariak, prostituzioa, apustuak eta abar.

Egoera honek guztiak eztanda egin zuen 1929an, New York-eko burtsaren gainbeherarekin. Gauzak horrela, ondorengo puntuetan, aurreko lerro hauetan marraztutako garaiarekin hertsiki lotuta dauden egileak aipatuko ditugu. Batzuek, **Belaunaldi Galdua** osatzen dutenek (Dos Passos, Hemingway, Fitzgerald...), Pariseraino eramango gaituzte, gerraren nahiz mende hasierako gizarte iparramerikarraren kritika egin zuten egileengana. Besteek, berriz, nobela sozialistaren ildotik (Steinbeck...) bere garaia ikuspuntu kritiko bortitza eskainiko digute.



Tartean
geratuko zaizkigu
William Faulkner
maisua, nobela
iparramerikar
garaikidearen
aitatzat jotzen
dena, edo 30eko
hamarkadan
Dashiell Hammet-
en eskutik sortzen
den Nobela Beltza.



Lost Generation (Belaunaldi Galdua)

Idazle amerikar hauek Lehenengo Mundu Gerrak eragindako atsekabea eta nahasketa adierazten zuten; Europara joan zirenek, gerraren zentzugabekeria eta ankerkeria salatzeaz gain, beste gai batzuk ere jorratu zituzten: hogeigarren hamarkadako poztasuna eta jazz garaia, ekonomiaren gainbehera, eta Estatu Batuetako gizartea, oro har.

Gertrude Stein (1874-1946)i dazle iparramerikarrari zor omen diogu *Lost Generation* izena. Nortasun handiko emakume hau garaiko hainbat idazle eta artistaren mezenas eta bultzatzaile bihurtu zen. Parisko bere etxean elkartzen ziren, besteak beste, punta-puntako margolariak (Matisse, Braque, Cézanne...), idazleak (Fitzgerald, Hemingway, Dos Passos...) eta beste. Azken hiru hauek *Lost Generation* delakoa osatzen zuten egileak dira. Ipar Amerikako puritanismoak eragindako giro itogarritik Europarantz etorri ziren idazle horiek gertutik ezagutu zituzten Lehenengo Mundu Gerraren sarraskiak eta, honen ondoren, errealitatea ez zitzairen batere asebetegarri egiten. Errealitateak enarazten zien etsipen handiarengatik, "galduta" sentitzen ziren egileok.



1. John Dos Passos (1896-1970)

Talde horretako idazleen artean politikoki konprometituena eta, kontateknikei dagokienez, berritzaileena.



John Dos Passos eleberrigilea Chicagon jaio zen, Illinois estatuan. Portugaldar jatorriko abokatu aberats baten sasiko semea izanik, bere amarekin atzerrian eman zuen haurtzaroaren eta nerabezaroaren zati handi bat. EEBBetara itzulita Harvard Unibertsitatean graduatu zen 1916an. Geroago, Lehenengo Mundu Gerran, ambulanzia-gidari ibili zen Italian eta Frantzia. Orduko bizipenak oinarritzat hartuta, *Three Soldiers* (1921) eleberrri bakezale garrantza plazaratu zuen, errealitate haren ankerkeriarekin topo egiteak sortarazi zion asalduraren adierazle.

Lehenengo Mundu Gerraren ondoren errealitatea ez zitzaion batere asebetegarri; iritzi berekoak ziren «Belaunaldi Galdua» idazle-taldeko gainerako kideak ere. Hain zuzen ere, horixe zuten ezaugarri behinena, **errealitateak ernarazten zien desilusio handia**, alegia.

Manhattan Transfer (1925) eleberriri esker, ospe handia lortu zuen. New York hirian kokaturiko kontakizun luze honetan berrikuntza estilistikoak egiteko aukera izan zuen John Dos Passosek, *USA* trilogian erruz baliatuko zituen berrikuntzak. New Playwrights Theatre-rekin zuen harremanaren ondorioz, *The New Masses* egunkari ezkertiarrean idazten hasi zen. *USA* trilogia argitaratzearekin batera, Dos Passos langileen idazlea zelako ustea areago sendotu zen.



Nicola Sacco eta Bartolomeo Vanzetti anarkistak 1927an exekutatu izanak berebiziko eragina izan zuen idazle estatubatuar honengan eta bien barkamena lortzeko alferrikako ahaleginetan gogotik aritu zen. Harrezkero Estatu Batuen baitan «bi nazio» bereizi zituen: batetik, aberats eta pribilegiatuena eta bestetik, pobre eta babesgabeena. *USA* trilogiak (*The 42nd Parallel*, 1919 eta *The Big Money*) ederki islatu zuen bitasun hori. *The 42nd Parallel* (1930) eleberrian, 1900etik Lehenengo Mundu Gerrara bitarteko aldia izan zuen gai nagusia. 1919 (1932), berriz, gerraz eta Versaillesko ituna sinatu zen urteaz ari da. Hurrengo hamar-hamabost urteez, ordea, *The Big Money* (1936) liburuak dihardu, hain zuzen ere, 20ko hamarkadako bat-bateko hazkuntza ekonomikotik hasita 30ko hamarkadako porrotera arte. Dos Passosek halako egiazkotasun-kutsu batez hornitzen ditu bere kontakizunak, alegiazko bere pertsonaiak indartu nahirik.

2. Francis Scott Fitzgerald (1896-1940)



Fitzgerald arrakastako idazlea izan zen eta aberatsen bizimodua ezagutu zuen, baita bere nobeletan kritikatu ere. Bere garaiko giro etsigarri eta nahasia ongien testuratu zuen idazlea da.

St. Paulen, Minnesotan, jaio zen eta txikitatik ezagutu zituen diru eskasiak zekartzan gizarte-mugak eta larritasunak. Aitonari esker bere ikasketak burutu ahal izan zituen eta gero unibertsitatera joan zen. Alabaina, ikasketak amaitu gabe utzi eta Lehenengo Mundu Gerrara soldadu joatea erabaki zuen. Garai hartan ezagutu zuen Zelda Sayre, gerora emazte bihurtuko zuena. Bere nobeletako neskatxa dotore-aristokratikoen antzekoa zen emakume honek izugarritzko eragina izan zuen Fitzgerald-en bizitzan eta, horrela, festaz festa eta luxuzko hoteletik hotelera eman zituzten urteak Paris eta New York artean.

Parisen ezagutuko zituen, hain justu, Hemingway, Gertrude Stein eta Dos Passos idazle ezagunak, besteak beste. Azken urteetan, ordea, hainbat arazok nahigabeturik bizi izan zen: diru-estuasuna, bere obrarekiko segurtasunik eza eta emaztearen eromena. Alkoholari emana, Hollywooden lan egin zuen hil aurretik.

Belaunaldi galduaren aldartea irudikatu zuen *Paradisuz honantz* (1920) nobelan. *Gatsby handia* (1926) maisu lanaren gaia aberatsen bizimodu distiratsua bezain hutsala eta amets amerikarra da. Nobela hau jotzen da egileak Estatu Batuetako gizarte, historia eta jendea deskribatzeko zuen ahalmen izugarriaren adibidetzat. Jazz Aroan dago kokatuta istorioa, luxuzko auto eta festa dotoreak ez ezik, krimen organizatuaren gorakada edo legez kanpoko joko eta likore kontrabandisten garaia. Eta guztiaren oinarrian Amerikar Ametsaren porrota edo ezintasuna agerian gelditzen da.

Beste izenburu batzuk honako hauek dira: *Gaua samurra da* (1934) eta *Azken magnatea* (1941), zinearen mundua erakusten zuen nobela amaigabea.



3. Ernest Hemingway (1899-1961)



Hemingway-ren estilo neurritsua eta zuzena eredia izan zen askorentzat; bere lanetan balore berriak bilatzen dira maitasunean, abenturan, ekintzetan eta bestelako emozioetan. Kazetari lanetan jardun zuen eta oso ipuin onak idatzi zituen.

Zezenzale amorratua zen (San Ferminetara egiten zituen bisitaldiak ezagunak dira) eta abentura maite zuen. Horregatik ibili zen egunkari berriemaile Ekialde Hurbilean eta Espainiako Gerra Zibilean, edo Afrikan lehoiak ehizatzen.

Barru-barrutik irtetzen zitzaion Hemingwayri bizitzari eta heriotzari oldartzeko beharra. Hemingwayk sinetsi egin zuen gizakiak bizitzari aurre egin diezaiokeela, eta heroi tragikoen antzera, bere nobeletako soldadu, ehiztari, arrantzale edo toretzaileak heriotzarekin, bizitzaren misterioarekin,

borrokoatzen dira. Bere bizitza gorabeheratsuan heriotzarekin etengabeko jolasetan ibilita, azkenean bere buruaz beste egin zuen.

Bere nobeletan egilearen obsesioak eta bizimodu kezkatsua antzematen dira: Lehenengo Mundu Gerran zauritua izan zen (*Agur armei*, 1929); Parisen bizi izan zen, (*Fiesta*, 1926) eta Espainia asko maitatu zuen, batez ere zezenketak, (*Heriotza arratsaldean*, 1932). Ehizarekiko zuen grina ere igartzen da *Afrikako muino berdeak* (1935) lanean. Ondorengo lanak dira *Norengatik ari dira joka kanpaiak* (1940), Espainiako Gerra Zibilari buruzkoa, eta *Agurea eta itsasoa* (1950), Nobel Saria eman ziona 1954an



William Faulkner (1897-1962)

Lost Generation-ekoen garaikide izan arren, ez zuen talde horretako kideekin harreman handiegirik izan. "Hegoalde Bentzutuan" jaioa, bera dugu "Hegoaldearen literatura" deitu izan zaionaren ordezkari garrantzitsuena.

Faulknerrekin abangoardia amerikarrak goia jo zuen. Bere obra zailen istorioak Yoknapatawpha-n gertatzen dira, Estatu Batuetako hegoaldea irudikatzen asmatu zuen lurraldean,

alegia. Lurralde horrek emango die lotura hainbat narraziori. Yoknapatawpha-n bizi diren zuriak eta beltzek, gaizkile eta bortxatzaileek, prostitutek... mundu kaotiko eta makabroa irudikatuko digute, gertakari bortitzenak jazotzen diren mundu asaldagarria.

1929an eman zuen argitara *Hotsa eta Ardaila* (*The Sound and the Fury* eleberria, egilearen lanik onenetakoa. Bertan, garai hobek ezagutu zituen familia baten gainbehera kontatu zuen Faulknerrek. Alabaina, ezerk egiten badu handi nobela hau, bere kontateknek egiten dute, egileak, linealtasunez antolatutako istorio bat eskaini ordez, hiru bakarriketa eta gertakariak kanpotik kontatzen dituen narratzailearen solasa eskaini baitzizkigun. Egitura zatikatu hau ikusita, irakurlearen esku geratzen da begien aurrean osatuz doakion istorioari zentzua harrapatzea.

Beste obra batzuek gizakiaren zitalkeria eta basakeria dituzte gaitzat, teknika desberdinez baliatuak: denbora jauziak, pertsonaia askoren ikuspegiak, hutsuneak kontakizunean, etab. *Santutegia* (1931) bahiketa basati baten kronika da; *Argia abuztuan* (1936) nobelak arrazakeria du gaitzat, eta *Absalom, Absalom!* (1936) hegoaldeko iraganaren azterketa bat da.

Nobel Saria lortu zuen 1950ean. Esperimentazio formal prosa landuarekin eta giza izaeraren ikuspuntu tragikoarekin uztartu zituen egile honen handitasuna dudaezinezkoa da gaur egun.



John Steinbeck (1902-1968)



John dos Passos-ekin batera, Steinbeck kontsideratzen da 30eko hamarkadako nobela sozialaren ordezkari nagusia. Bere nobela gehienetan, 20ko hamarkadaren amaieran estatubatuarrek bizi izan zuten krisi gogorra islatzen saiatu zen, nekazarien artean egon ziren migrazioen berri hunkigarria ere emanez. Bere estiloa xumea eta egiatia da, gehiegikeria guztiak saihesten dituena. Horregatik eta, batez ere, elaberriek iradokitzen duten errealitate bortitz eta gogorragatik, 30eko hamarkadako idazle arrakastatsuenetakoa bihurtu zen Steinbeck eta bere nobela asko



zinemako pantailara eraman ziren.

Suminaren mahatsak (1939) nobelan Oklahomatik Kaliforniara lan bila doan nekazari talde baten bizimodu dramatikoak kontatu zuen eta nekazaritzatik bizi ziren familien bizi baldintza miserableak deskribatu. John Ford zuzendariak zinemara eraman zuen.

Perla (1947) eleberrian, berriz, estilo zuzen, simple eta indartsuan, Munduko Perlaren aurkikuntzak arrantzale familia pobre batean eragingo dituen gertakariak maisuki kontatu zituen.

1962 urtean Nobel saria eman zioten.

AEBKO LITERATURA HANDIAREN GAILURRA. BELAUNALDI GALDUA

1. Zer da Belaunaldi Galdua (Lost Generation)? Non eta nola sortzen da? Aipatu eragile nagusia, idazle garrantzitsuenak...

2. Aipatu idazle hauen obra batzuk eta ezaugarri bana:

Idazlea	Obrak	Ezaugarriak
JOHN DOS PASSOS		
FRANCIS SCOTT FITZGERALD		
ERNEST HEMINGWAY		
WILLIAM FAULKNER		
JOHN STEINBECK		